Sin./Fdo.: CRISTINA SARDUY GAINZA 2023-02-17
GENERO POLITIKETARAKO ETA DIBERTSITATERAKO IDAZKARI TEKNIKOA
SECRETARIO/A TÉCNICO/A DE POLÍTICAS DE GÉNERO Y DIVERSIDAD
Sin./Fdo.: PATRICIA CAMPELO MARTINEZ 2023-02-17
BERDINTASUNA SUSTATZEKO ZUZENDARITZA NAGUSIA-REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE IGUALDAD
Sin./Fdo.: MARÍA TERESA LAESPADA MARTINEZ - 2023-02-20
ENPLEGUA,GIZARTE INKLUSIOA ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE EMPLEO, INCLUSIÓN SOCIAL E IGUALDAD
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2023-02-28
GZko 19.gaia onartuta - Aprobado, asunto 19) de OD

Bizkaia foru aldundia diputación foral

**ERABAKIA,** BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA BBK BANKU FUNDAZIOAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA ONESTEKO, EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA SUSTATZE ALDERA ZIRGARI SARIAK 2023 DEITU, HAUTATU ETA BANATZEKO

**ACUERDO** POR EL QUE SE APRUEBA EL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y LA FUNDACIÓN BANCARIA BBK PARA LA CONVOCATORIA, ELECCIÓN Y ENTREGA DE LOS PREMIOS ZIRGARI SARIAK 2023 PARA LA PROMOCIÓN DE LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES

Bizkaiko Foru Aldundiak hainbat jarduketa gauzatu behar ditu emakume eta gizonen arteko berdintasunerako duen estrategiaren baitan, tartean emakumeen eta gizonen desberdintasun-egoerari buruzko sentsibilizazio-jarduerak egiteko lege-betebeharra (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea). Legearen arabera, foru-administrazioen beste lege-betebehar bat honako hau litzateke: parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko loturak eta bideak ezartzea erakunde publikoen eta pribatuen artean, beren helburu edo funtzioen arabera emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lor dezaten dagokien eremuan.

Halaber, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauak, betebehar berak jartzen dizkio Bizkaiko Foru Aldundiari 5. artikuluko f) eta k) letretan.

Bestalde, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren erregelamendu organikoa onetsi duen ekainaren 30eko Bizkaiko Foru Aldundiaren 66/2020 Foru Dekretuarekin bat etorriz,

En el marco de las actuaciones en torno a las que se articula la estrategia para la igualdad de mujeres y hombres por parte de la Diputación Foral de Bizkaia se incluye la obligación legal (Ley 4/2005, de 18 de febrero para la Igualdad de Mujeres y Hombres) de realizar actividades de sensibilización sobre la situación de desigualdad entre mujeres y hombres. Además, la misma Ley recoge para las administraciones forales la obligación legal del establecimiento de relaciones y cauces de participación y colaboración con entidades públicas y privadas que en razón de sus fines o funciones contribuyan en su ámbito territorial a la consecución de la igualdad de mujeres y hombres.

Asimismo, la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres establece estas mismas obligaciones para la Diputación Foral de Bizkaia en los apartados f) y k) del artículo 5.

Por otro lado, en virtud del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 66/2020, de 30 de junio, por el que se aprueba el Reglamento Orgánico del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad corresponde a la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: B6F5-WH2Q-H4DB-QPYF
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Berdintasunerako, Lankidetzarako eta Dibertsitaterako Zuzendaritza Nagusiari dagokio Emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko politikak sustatu eta artikulatzea Bizkaian, bereziki, emakumeen aurkako indarkeriari, erantzunkidetasunari, lana eta familia uztartzeari eta emakumeak bizitzaren arlo guztietako ahalduntzeari dagokienez.

Beste alde batetik, Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioaren helburuen artean dago Bizkaiko garapen sozial, kultural eta ekonomikoa sutatzen lagunduko duen orori arreta integrala ematea.

Gauzak horrela, biztanleak gizon eta emakumeen arteko desberdintasun-egoerei buruz sentsibilizatzeko nahiz Bizkaiko Lurralde Historikoan gauzatzen ari diren programen eta jarduketen berri emateko testuinguruan, interesgarritzat jotzen da sariak deitzea, irabazteko asmorik gabe emakumeen eskubideak zein emakume eta gizonen berdintasuna aintzatetsi eta sustatzeko egindako lanagatik nabarmentzen diren pertsona fisiko, erakunde eta proiektuei eskerrak emate aldera; halaber, sari horien bitartez gainerako biztanleak egiteko horretan inplikatzera bultzatzen dituzten jarduketa goraipagarriak jendaurrean zabaldu nahi dira ere bai.

Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren eta Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioaren arteko lankidetza-premia jarri da mahai gainean, sentsibilizatzea eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea bilatzen dituen proiektu hau abiarazteko eta garatzeko, betiere aintzat hartuta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 6-k) artikuluan eta Emakume eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauren 5-k) artikuluan

Dirección General de Igualdad, Cooperación y Diversidad el impulso y articulación de políticas de igualdad de mujeres y hombres en Bizkaia con especial atención a la violencia ejercida contra las mujeres, la corresponsabilidad y la conciliación y el empoderamiento de las mujeres en todos los ámbitos de la vida.

Por su parte, Bilbao Bizkaia Kutxa Fundación Bancaria-Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioa tiene entre sus fines el de prestar una primordial atención a aquello que pueda contribuir al fomento del desarrollo social, cultural y económico de Bizkaia.

En este contexto de sensibilizar a la población sobre las situaciones de desigualdad entre hombres y mujeres y de informar sobre los programas y actuaciones que se están realizando en el Territorio Histórico de Bizkaia, se considera de interés la convocatoria de unos premios que permitan reconocer a personas físicas, entidades y proyectos que destaquen por su contribución desinteresada al reconocimiento y promoción de los derechos de las mujeres y de la igualdad de mujeres y hombres y que por otra parte sirvan para difundir públicamente sus meritorias actuaciones que estimulan la implicación del resto de la sociedad en esta labor.

Se plantea la necesidad de una colaboración entre el Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia y Bilbao Bizkaia Kutxa Fundación Bancaria-Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioa para la puesta en marcha y desarrollo de este proyecto que persigue la sensibilización y la promoción de la igualdad de mujeres y hombres teniendo en cuenta lo dispuesto en el artículo 6-k) de la Ley 4/2005 de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y en el artículo 5-k) de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: B6F5-WH2Q-H4DB-QPYF
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

xedatutakoa.

Kontuan izanik aurreko ataletan adierazitakoa, bi aldeek ezarri nahi dituzte lankidetzarako oinarriak, lankidetza-hitzarmen bat eginik Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 4.7 artikuluaren babespean

Azaldutako guztia dela bide, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautespenari, Antolaketari, Araubideari eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauan eta Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren erregelamendu organikoa onetsi duen ekainaren 30eko Bizkaiko Foru Aldundiaren 66/2020 Foru Dekretuan ezarritakoa oinarritzat hartuta, Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko diputatuak proposatuta

ERABAKIA

LEHENENGOA- Bizkaiko Foru Aldundiaren (Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren) eta Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioaren arteko lankidetza-hitzarmena onestea (hori erabaki honi itsasi zaio eranskin moduan), Zirgari Sariak 2023 deitu, hautatu eta banatzeko, irabazteko asmorik gabe emakumeen eskubideak zein emakume eta gizonen berdintasuna aintzatetsi eta sustatzeko egindako lanagatik nabarmentzen diren pertsona fisiko, erakunde eta proiektuei eskerrak emate aldera; halaber, sari horien bitartez gainerako biztanleak egiteko horretan inplikatzera bultzatzen dituzten jarduketa goraipagarriak jendaurrean zabaldu nahi dira ere bai.

Adierazitako hitzarmena sinatzen den egunetik 2023ko apirilaren 21era arte egongo da indarrean.

Mujeres y Hombres.

Teniendo en cuenta lo manifestado en los apartados precedentes, ambas partes pretenden establecer las bases de cooperación, formalizando un convenio al amparo del artículo 47 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

En virtud de lo expuesto y en base a lo previsto en la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, así como en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 66/2020, de 30 de junio, por el que se aprueba el Reglamento Orgánico del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia, a propuesta la Diputada de Empleo, Inclusión Social e Igualdad,

ACUERDA

PRIMERO- Aprobar el Convenio de Colaboración entre la Diputación Foral de Bizkaia (Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad) y Bilbao Bizkaia Kutxa Fundación Bancaria-Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioa, que se une como Anexo al presente acuerdo, para la convocatoria, elección y concesión de los Premios Zirgari Sariak 2023, que permita reconocer a personas físicas, entidades y proyectos que destaquen por su contribución desinteresada al reconocimiento y promoción de los derechos de las mujeres y de la igualdad de mujeres y hombres y difundir públicamente sus meritorias actuaciones que estimulan la implicación del resto de la sociedad en esta labor,

Dicho convenio tendrá vigencia desde su firma hasta el 21 de abril de 2023.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: B6F5-WH2Q-H4DB-QPYF
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

BIGARRENA.- Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru-diputatuari ahalmena ematea aipaturiko hitzarmena sina dezan.

SEGUNDO.- Facultar a la Ilma. Sra. Diputada Foral del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad para que proceda a la firma del mencionado Convenio.

Genero politiketarako eta Dibertsitaterako idazkari teknikoa / La secretaria técnica de Políticas de Género y Diversidad. CRISTINA SARDUY GAINZA.

O. E. / Vº Bº

Berdintasunerako zuzendari nagusia / La directora general de Igualdad. PATRICIA CAMPELO MARTÍNEZ.

Aurreko tramitean ezarri denarekin bat, Gobernu Kontseiluari aurkeztu behar zaio. / De conformidad con el trámite precedente, elévese al Consejo de Gobierno.

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru-diputatua / la diputada foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad. TERESA LAESPADA MARTÍNEZ

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: B6F5-WH2Q-H4DB-QPYF
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ERANSKINA/ANEXO

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA BILBAO BIZKAIA KUTXA BANKU FUNDAZIOAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA SUSTATZE ALDERA ZIRGARI SARIAK 2023 DEITU, HAUTATU ETA BANATZEKO

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA, Y BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDACIÓN BANCARIA-BILBAO BIZKAIA KUTXA BANKU FUNDAZIOA, PARA LA CONVOCATORIA, ELECCIÓN Y ENTREGA DE LOS PREMIOS ZIRGARI SARIAK 2023 PARA LA PROMOCIÓN DE LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES

BILDU DIRA:

EN REUNIÓN

Alde batetik, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru-diputatua den Teresa Laespada Martinez andrea, Bizkaiko Foru Aldundiaren izen eta ordezkaritzan, 2023ko xxxxaren xx(e)(a)n Bizkaiko Foru Aldundiak hartutako erabakiaren arabera.

De una parte, la Ilma. Sra. Dª Teresa Laespada Martinez, Diputada Foral del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia. según Acuerdo de la Diputación Foral de Bizkaia adoptado en sesión celebrada el xx de xxxx de 2023.

Bestetik, Bilbao Bizkaia Kutxa Fundación Bancaria-Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioko Zuzendari Orokorra den Jorge Martinez Salcedo jauna.

De otra parte, Jorge Martínez Salcedo, en nombre y representación, como Director General de Bilbao Bizkaia Kutxa Fundación Bancaria-Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioa

Alderdiek agiri hau formalizatzeko behar den gaitasun juridikoa eta ordezkaritzan jarduteko ahalordea onartu dizkiote elkarri, eta elkar hartuta hauxe

Reconociéndose ambas partes la capacidad jurídica necesaria para la formalización del presente documento y aceptándose recíprocamente las representaciones a cuyo tenor actúan de común acuerdo,

ADIERAZI DUTE:

MANIFIESTAN

LEHENENGOA. - Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen eta Emakume eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren arabera, foru-administrazioen beste lege-betebehar bat honako hau litzateke: parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko loturak eta bideak ezartzea erakunde publikoen eta pribatuen artean, beren helburu edo funtzioen

PRIMERO. -La Ley 4/2005, de 18 de febrero para la Igualdad de Mujeres y Hombres y la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, señalan para las administraciones forales vascas la obligación legal del establecimiento de relaciones y cauces de participación y colaboración con entidades públicas y privadas que en razón de sus fines o

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: B6F5-WH2Q-H4DB-QPYF
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

arabera emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lor dezaten dagokien eremuan.

funciones contribuyan en su ámbito territorial a la consecución de la igualdad de mujeres y hombres.

BIGARRENA. – Bizkaiko Foru Aldundiaren Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiak, beste egiteko batzuen artean, emakumeen eta gizonen desberdintasun-egoerari buruzko sentsibilizazio-jarduerak gauzatu behar ditu; era berean, Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioaren helburuen artean dago Bizkaiko garapen sozial, kultural eta ekonomikoa sustatzen lagunduko duen orori arreta integrala ematea.

SEGUNDO. - La Dirección General de Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia tiene entre sus funciones la de realizar actividades de sensibilización sobre la situación de desigualdad entre mujeres y hombres y Bilbao Bizkaia Kutxa Fundación Bancaria-Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioa tiene entre sus fines el de prestar una primordial atención a aquello que pueda contribuir al fomento del desarrollo social, cultural y económico de Bizkaia.

HIRUGARRENA. - Biztanleak emakumeen eskubideen zein emakume eta gizonen berdintasunaren inguruan sentsibilizatzeko modu bat irabazteko asmorik gabe emakume eta gizonen berdintasuna aintzatetsi eta sustatzeko egindako lanagatik nabarmentzen diren pertsona fisiko, erakunde eta proiektuei eskerrak ematea da. Alde batetik, merezitako aintzatespena egitea ahalbidetzen du; horrez gain, sariaren aurkezpen publikoak herritarren artean gainerako biztanleak egiteko horretan inplikatzera bultzatzen dituzten jarduketa goraipagarriak jendaurrean zabaltzeko balioko du.

TERCERO. - Una manera de sensibilizar a la población en materia de derechos de las mujeres y de promoción de la igualdad de mujeres y hombres es la de reconocer a personas físicas, entidades y proyectos que destaquen por su contribución desinteresada al reconocimiento y promoción de los derechos de las mujeres y de la igualdad de mujeres y hombres. De un lado, permite un reconocimiento merecido y la presentación pública del premio contribuye a difundir entre la ciudadanía unas meritorias actuaciones que estimulan la implicación del resto de la sociedad en esta labor.

LAUGARRENA. - Bizkaiko Foru Aldundiaren Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren eta Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioaren arteko lankidetza-premia jarri da mahai gainean, emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatze aldera Zirgari Sariak 2023 deitu, hautatu eta banatzeko.

CUARTO. - Se plantea la necesidad de una colaboración entre el Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia y Bilbao Bizkaia Kutxa Fundación Bancaria-Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioa para la convocatoria, elección y entrega de los Premios Zirgari Sariak 2023 para la promoción de la igualdad de mujeres y hombres.

Aipatutako proiektua abiarazteko eta haren kontrola eta jarraipena egiteko berariazko prozedurak ezartzeko, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren

Para la puesta en funcionamiento del citado proyecto y a fin de establecer los procedimientos específicos para su control y seguimiento, procede formalizar el

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: B6F5-WH2Q-H4DB-QPYF
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

eta Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioaren arteko hitzarmena sinatu behar da. Hitzarmena honako xedapenei lotuko zaie:

BALDINTZAK

Lehenengoa. - Hitzarmenaren xedea

Hitzarmenaren helburua Bizkaiko Foru Aldundiaren (Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila) eta Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioaren arteko lankidetza-harremanak ezartzea da, emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatze aldera Zirgari Sariak 2023 deitu, hautatu eta banatzeko xedearekin.

Bigarrena. - Lankidetzaren edukia

Hitzarmen honen xedea lortzeko, sinatzaileak bat datoz ekarpen eta konpromisoen araubide honetan:

a) Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak konpromiso hauek hartu ditu:

- Idazkaritza-kudeaketak burutzea epaimahaia biltzeko, akta egiteko eta deialdia bera nahiz horren ebazpena argitaratzeko.

- Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioarekin batera, Zirgari Sariak 2023ko modalitate bakoitzeko pertsona edo erakunde saridunа hautatzeko epaimahaiko kide izatea.

correspondiente convenio entre el Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad y Bilbao Bizkaia Kutxa Fundación Bancaria-Bilbao Bizkaia Kutxa, que se ajustará a las siguientes

ESTIPULACIONES

Primera. - Objeto del convenio

El presente convenio tiene por objeto establecer las relaciones de colaboración entre la Diputación Foral de Bizkaia (Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad) y Bilbao Bizkaia Kutxa Fundación Bancaria-Bilbao Bizkaia Kutxa, para la convocatoria, elección y entrega de los Premios Zirgari Sariak 2023 para la promoción de la igualdad de mujeres y hombres.

Segunda. - Contenido de la colaboración.

Para la consecución del objeto del presente convenio, las partes suscribientes convienen en el siguiente régimen de aportaciones y compromisos:

a) Por parte del Departamento Empleo, Inclusión Social e Igualdad:

- Realizar las gestiones de secretaría para la reunión del Jurado y levantamiento de acta y publicitación de la convocatoria y su resolución.

- Participar, junto con Bilbao Bizkaia Kutxa Fundación Bancaria-Bilbao Bizkaia Kutxa en el Jurado para la elección de la persona o entidad premiada en cada una de las modalidades de los Premios Zirgari Sariak 2023

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: B6F5-WH2Q-H4DB-QPYF
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

- Sarien banaketa-ekitaldirako gonbidapenen kudeaketa gauzatzea.

- Sarien banaketa-ekitaldian parte hartzea.

- Sarien banaketa-ekitaldiaren antolakuntzak eragindako gastuei aurre egitea aretoaren lagapen gastuak eta aretoaren gainerako berezko gastuak kanpo.

- Herritarren artean sarien deialdia zabaltzea, baita horiek emate eta banatzeari buruzko berri guztiak ere.

b) Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioak konpromiso hauek hartu ditu:

- Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailarekin batera, Zirgari Sariak 2023ko modalitate bakoitzeko pertsona edo erakunde saridun hautatzeko epaimahaiko kide izatea.

- BBK ARETOA erabiltzen doan lagatzea, ekitaldiak iraun bitartean, zein egingo baita martxoan Emakumeen Nazioarteko Egunaren ospakizunak aprobetxatuta, Bizkaiko Foru Aldundiaren jarraibideei men eginez, ekitaldiaren antolaerari eta behar teknikoei dagokienez. BBKk bere gain hartuko ditu ekitaldi horretako gastu hauek: laguntza teknikoa (salako pertsonala eta soinua), segurtasuna eta mantentze-lanak.

- Sei mila (6.000) euroko diru-ekarpena hiru kategorietan, hau da, 18.000 (hamazortzi mila) euroko guztizko diru-ekarpena. Ordainketa, banku-transferentzia eginez ordainduko da,

- Proceder a la gestión de invitaciones para el acto de entrega del Premio

- Participar en el acto de entrega de premios

- Afrontar los gastos que se deriven de la organización del acto de entrega de los Premios, excluido el alquiler de sala y el resto de gastos propios de la sala

- Difundir entre la ciudadanía la convocatoria de los premios y todas las noticias que se deriven de su concesión y entrega.

b) Por parte de Bilbao Bizkaia Kutxa Fundación Bancaria-Bilbao Bizkaia Kutxa:

- Participar, junto con el Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad en el Jurado para la elección de la persona o entidad premiada en cada una de las modalidades de los Premios Zirgari Sariak 2023.

- Ceder gratuitamente el uso de la SALA BBK, durante la duración del acto, que se celebrará en el mes de marzo con motivo del Día Internacional de las Mujeres, siguiendo las indicaciones de la Diputación Foral de Bizkaia, en cuanto a la organización y necesidades técnicas del evento. BBK asumirá los gastos de asistencia técnica (personal de sala y sonido), seguridad y mantenimiento, que requiere dicho Evento.

- Aportar una contribución económica de seis mil (6.000) euros para cada una de las tres categorías del premio, es decir, un total de 18.000 € (dieciocho mil euros).

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: B6F5-WH2Q-H4DB-QPYF
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Sari bakoitza, hala badagokio, Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotuta egongo da, eta sariduna enpresaburu edo profesionala bada, atxikipen profesionalarena (% 15 edo% 7). Kasu horietan, entitateek edo profesionalek emango diote faktura Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioari.

Cada premio, estará sujeto, si procediera, al Impuesto sobre el Valor Añadido y, si procediera a retención de profesionales (15% o 7%), en el caso de que la premiada sea una empresaria o profesional. En estos casos, serán las propias entidades o profesionales quienes emitan la correspondiente factura a Bilbao Bizkaia Kutxa Fundación Bancaria-Bilbao Bizkaia Kutxa.

- Sarien banaketa-ekitaldian parte hartzea.

- Participar en el acto de entrega de premios

- Sarien deialdia zabaltzea, baita horiek emate eta banatzeari buruzko berri guztiak ere.

- Difundir la convocatoria de los premios y todas las noticias que se deriven de su concesión y entrega.

Hirugarrena. – Lehiaketa

Hiru modalitate izango ditu:

a) “Zirgari Saria 2023 – Ohorezko saria”

b) “Berdintasunaren aldeko proiektuaren saria. Zirgari Saria 2023”

c) “Berdintasunaren aldeko erakundearen saria. Zirgari Saria 2023”

Lau modalitateak jasotzen dituzten lehiaketaren oinarriak, faseak, hartzaileak, epaimahaiaren osaketa, sariak, etab. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru-diputatuaren foru-aginduaren bidez arautzen dira.

Tercera. - Concurso.

Constará de tres modalidades:

a) “Premio honorífico Zirgari Saria 2023

b) “Premio Proyecto por la igualdad. Zirgari Saria 2023”

c) “Premio Entidad por la Igualdad. Zirgari Saria 2023”.

Las bases del concurso, que recogen las modalidades del mismo, sus fases, las personas destinatarias, la composición del jurado, los premios etc se regulan mediante Orden Foral de la Diputada Foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: B6F5-WH2Q-H4DB-QPYF
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Laugarrena. - Hitzarmenaren iraupena

Hitzarmena sinatzen den egunetik 2022ko apirilaren 21era arte egongo da indarrean.

Bosgarrena. Koordinazioa eta ebaluazioa

Hitzarmen honi dagozkion jarduerak burutzeko, jarraipen-batzorde bat eratuko da, eta erakunde parte-hartzaile bietako ordezkariek osatuko dute.

Batzordeak sariaren prestaketa (deialdia, hautespena eta banaketa-ekitaldia) aztertuko du eta ahalmena izango du sinatzaileen artean hitzarmen hau interpretatzeko eta betetzeko gerta litezkeen arazo guztiak ebazteko.

Seigarrena- Publizitatea

Bizkaiko Foru Aldundiaren Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioak hitzarmen honetako alderdi bakoitzaren logotipoa jarriko dute programa hau gauzatzean sortzen diren dokumentu dibulgatzaile guztietan

Zazpigarrena. - Hitzarmenaren ez betetzea eta indargabetzea

1. Hitzarmen honen xedapenak ez betetzeak berau indargabetzea ekarriko du.

2. Horrez gain, ondoak ere hitzarmena iraungitzeko arrazoiak izango dira:

a) Alderdi sinatzaileen adostasuna, idatziz adierazita
b) Hartutako konpromisoak ez betetzea

Cuarta. - Duración del convenio

El presente convenio entrará en vigor el día de su firma y finalizará el 21 de abril de 2023

Quinta. Coordinación y evaluación.

Para el desarrollo de las actividades objeto de este convenio, se constituirá una Comisión de Seguimiento compuesta por representantes de cada una de las dos entidades colaboradoras.

Esta Comisión analizará el desarrollo de la preparación de lo concerniente al Premio (convocatoria, elección y acto de entrega) y tendrá capacidad para resolver cuantas cuestiones de interpretación y cumplimiento del presente Convenio puedan suscitarse entre las partes firmantes.

Sexta: Publicidad

Diputación Foral de Bizkaia (Departamento de Empleo, Igualdad e Inclusión Social) y Bilbao Bizkaia Kutxa Fundación Bancaria-Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioa se comprometen a reflejar en cualquier documento divulgativo resultante del desarrollo del Programa el logotipo de cada una de las partes de este Convenio

Séptima. - Incumplimiento y resolución del convenio

1. El incumplimiento de lo señalado en las estipulaciones del presente convenio será causa de resolución del mismo.

2. Además, serán causas de resolución del convenio:

a) el mutuo acuerdo de las partes, que deberá ser instrumentado por escrito.
b) la imposibilidad sobrevenida, legal o

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: B6F5-WH2Q-H4DB-QPYF
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

programaren onuradunak diren pertsonei eman beharreko etxebizitza-laguntzari dagokionez.

c) Hitzarmenaren izaeratik sortutako edozein ez-betetze, indarrean dagoen legerian jasota dagoena.

material, para desarrollar las actividades que constituyen su objeto.

c) cualquier incumplimiento que derivado de la naturaleza del acuerdo sea recogido en la legislación vigente.

Zortzigarrena- Datuen babesa

Datu pertsonalen babesaren arloan aplikatu behar den araubidea manu hauetan ezartzen da: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko dena.

Octava-. Protección de datos

El régimen de protección de datos personales aplicable es el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos y la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de datos personales y garantía de los derechos digitales.

Bederatzigarrena. - Araubide juridikoa

Hitzarmen hau administratiboa da eta bertan xedatutakoari ez ezik zuzen edo analogiaz aplika daitezkeen administrazio-zuzenbideko arauei ere lotu behar zaie.

Novena. - Régimen Jurídico.

El presente convenio tiene naturaleza administrativa y se regirá, además de por lo dispuesto en el mismo, por las normas de Derecho Administrativo que, directamente o por analogía, pudieran resultar de aplicación.

Hamargarrena. – Jurisdikzioa

Interpretaziotik edo betetzetik sor litekeen edozein auzitarako, alderdiek era adiskidetsuan konpontzerik ez baleukate, administrazioarekiko auzien epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren pean jarriko dira.

Décima. - Jurisdicción.

Para cualquier cuestión litigiosa que surgiera de su interpretación o cumplimiento y que no fuera solucionable de forma amistosa por las partes, éstas se someten a la jurisdicción de los juzgados y tribunales del orden contencioso-administrativo.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: B6F5-WH2Q-H4DB-QPYF
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus